

AURKEZPENA

Altza BHI institutoko bigarren batxilergoko lau ikasle gara. Txikitatik, denei laguntzeko beharra sentitu dugu, eta are gehiago behar duten pertsoneri. Hori dela eta, zerbitzu hau sortzea erabaki dugu.

Kasu honetan, gu, prest gaude ezintasun mentalak edo fisikoak dituzten pertsoneri gure laguntza eskaintzeko, igeri egin dezaten. Oso polita irudituko litzaiguke pertsona horiek igeri egiteko esperientzia bizitzen lagundu ahal izatea. Era berean, gure auzoko igerilekuetan jarriko dugu hemengo langabezia ahalik eta gehien murrizteko.

Hondartzan ere zerbitzu berezia eskaintzen dugu, ahal den neurrian kirol ezberdinak eta, beraz, esperientzia ezberdinak probatzeko.

Egungo arazoak ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu horrelako ekintzak bultzatzea. Mota honetako jarduerak ez dira oso ohikoak, eta guk sustatu nahiko genituzke.